

Snow-en *Bi kulturak* liburua euskaraz

Lopez, Rakel

Marketin Saila/Elhuyar Fundazioa

Inaki Irazabalbeitia Kimikako doktoreak itzuli eta moldatutako *Bi kulturak* liburua argitaratu du Elhuyar Fundazioak. Liburu hori C.P. Snow zientzialari eta idazleak idatzi zuen eta klasiko bat da zientziaren eta gizartearen harremanez diharduten lanen artean.

1959AN C.P. SNOWEK CAMBRIDGEN *BI KULTURAK* HITZALDIA EMAN ZUENEAN esandakoak hautsak harrotu zituen garaiko intelektualen artean. Snowen iritziz, Mendebaldeko kultura bi polo kontrajarritan bana daiteke: intelektual literarioak eta zientzialariak. Bi poloen arteko komunikaziorik ezaren ondorioz, lubaki gero eta sakonagoa sortzen ari da, bestalde.

Hona hemen Snowen hitzetan gogoeta horren mamia: "Alabaina, uste dut zientzia inondik inora ulertzen ez duen poloak beste guztiari eragiten diola. Ulertezintasun erabateko horrek, kul-

tura 'tradizional' osoari horrelako kutsu azientifikoa ematen dio, guk sumatu baino sakonagoa, eta kutsu azientifikoa hori onartzen duguna baino handiagoa da anti-zientifikoa bihurtzeko heinekoa. Polo baten sentimenduak bestearen anti-sentimendu bihurtzen dira. Zientzialariak etorkizunaren jabeak badira, kultura tradizionalaren erantzuna izaten da etorkizunik nahi ez izatea. Kultura tradizionala da, zeini kultura zientifikoa- ren agerpenak neurri batean itzal azpimarragarri txikia egin dion, mendebaldea gobernatzen duena!"

Bere jardunean nagusiki Ingalaterrako gizarteaz eta haren nortasun bereziak eragindako ondorioez ari bada ere,

bere gogoeta, Snowek berak seinaltatzen duenez, Mendebaldeko gizarte aurreratuetara alda daiteke. Horren adibide da giro literario zein zientifikoetan Snowen ideiak sortutako eztabaida eta harrabotsa.

Snowen obra hau klasiko bat da zientziaren eta gizartearen harremanez diharduten lanen artean. Denboraren eta distantziaren iragazkia aplikatuta, kezka hori egungo Euskal Herrira ekar daiteke. Atariko mamitsu batean, Inaki Irazabalbeitiak, Snowen ideiak estakurutzat hartuta, XXI. mendearen hasiera honetan zientziak euskal gizartearen jokatzeko duen *rollaz* hausnarketa egingen du. 

